



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko maiatzaren 4a

42. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako segurtasun publikoari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (19. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasunaren arloko gastu publikoa handitu dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (20. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Barañaingo eta Iruñeko Bigarren Zabalgune-ko osasun etxeak zabal ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako segurtasun publikoari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2006ko martxoaren 20ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak: Nafarroako Gobernuak bidalitako Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Lege proiektuak fikzio bat du abiapuntu; hots, Nafarroako segurtasun publikoaren arloko eskumen batzuk eskuratuak dituela ulertzea, gaur egun inola ere ez dituenak, parlamentu-talde honen nahia bestelakoa bada ere.

Foru Hobetzeak gai honi buruz jasotzen duen araubidea osatu gabea eta mugatua izateagatik, eta gobernu batzuek nahiz besteek izandako axo-lagabekeriagatik, garai haiez geroztik gai hau halako zehazgabetasun juridiko batean murgildurik dago, eta araubide bat prestatu aurretik, argitu beharra dago hori. Araubide hori, dena den, gehiago da eduki material eskaseko nahi formal bat zenbait polizia koordinatzeko egiazko araudi bat baino; hain zuzen ere, arau oso ezberdin eta askotariko jatorria dutenek arauturiko polizia batzuk.

Lege proiektuak bilatzen du egitatezko egoera bat irauraraztea, gaur egungo estatusarekin alderatuz inolako hobekuntzarik ekarriko ez duena, eta jasotzen dituen berrikuntzak apaindura hutsak dira, arlo honetan herritarren ustezko parte-hartzeak ez baitu berarekin ekartzen herritarrei halako eskubideak ematea non nolabaiteko egiazko kontrola ezarriko bailuketen erkidegoko edozein mailatako segurtasun-politikan.

Horregatik guztiagatik, eta gai honetan ere Foru Hobetzea sakonki eraberritzeko beharrezana berriro ere azpimarratuz, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari proposatzen diogu erabaki dezala Nafarroako Gobernuari itzultzea Nafarroako segurtasun publikoari buruzko foru lege proiektua.

2. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Lege proiektua honako arrazoi hauengatik itzuli behar zaio Nafarroako Gobernuari:

A) Segurtasunaren kontzeptu zaharkitu bat hartzen du abiapuntu gisa, ordenaren kontzeptuari loturik eta haren menpean dagoena, gizarte modernoetan jadanik nabarmen gainditua, eta ideologia kontserbadorearen ikusmoldearen eremuko. Gobernuak bestelako proiektu bat prestatu behar du, herritarren bizikidetasunaren kontzeptuan eta aniztasunaren defentsan oinarritua.

B) Oinarri gisa hartzen du Nafarroako herritarren bizikidetzaren eta segurtasunaren arloko eskumen guztiak ez eskuratzearen ideia. Alabaina, eskumen horiek Nafarroako herritarren jomuga

bat eta eskubide bat dira. Horregatik, lehenik eta behin, errepideen arloko eskumenaren transferentzia behingoz burutu beharko litzateke. Eskumen hori, gainera, frankismoaren garaian ostu zitzaien Nafarroako herritarrei, eta behin eta berriro aipatua da, emaitzarik gabe. Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoak jadanik eskuratua dauka. Hirietako ordena publikoaren transferentzia ere eskuratu beharko litzateke, eta Foruzaingoa hedatzeko plan bat egin, eskumen hori jadanik zenbait autonomia erkidegoren erantzukizuneko izaki. Hori dela-eta, Foru Hobetzeko 51. artikulua garatu behar da lege honek proposatzen duena baino askoz ere zorrotasun handiagoz.

C) Lege proiektu hori apalegia da bere helburu eta ikusmoldeei dagokienez, baina, aldi berean, adierazpide harrogiak erabiltzen ditu.

D) Gobernuari itzul dakion eskatzen dugun lege proiektu honen benetako eta egiazko helburua da udaltzaingoan gainera kontrola Nafarroako Gobernuaren eskuetan uztea, eta kontrolaren eskualdaketa hori hitz-jario arranditsu eta harroa erabiliz egitea (segurtasun planak, segurtasun kontseiluak...).

E) Herritarren Segurtasunerako Kontseilua ez da ongi egituraturiko entitate bat, baldin eta kontuan hartzen bada Segurtasun Batzorde bat bada-goela, Foru Hobetzeko 51.2.2. artikuluan aipatua, eta bi erakunde horien arteko harremanak hagitz korapilatsua dirudiela.

F) Lege proiektu honek areagotu egiten du kontseilu, organo aholku-emaile eta ustez herritarren parte-hartzerakoak izan arren azken batean administrazio bakoitzak nahi duenaren eta komeni zaionaren arabera hautatuak diren erakundeen inflazioa. Berriro ere, kontseilu orokor, tokiko eta abar ugari eratzen dira, bai eta departamentu arteko batzordeak ere, eta jadanik badaudenei gehitzen zaizkien beste batzuk ere.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua –"Xedea eta helburuak"– aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

"Foru lege honen xedea da Nafarroako Foruzaingoa eta toki-poliziak edo udaltzaingoa koordinatzea".

Zioak: Proiektuko testuak aipatzen ditu "segurtasun sistema orokor" bat edo "administrazio publiko guztiak", begi-bistakoa denean oraindik ere eskualdatzeaz dauden eskumenak badaudela, bai eta Guardia Zibila, Polizia Nazionala eta bestelako polizia-kidegoak ere, lege honen eskumenetik at daudenak.

Horrela, bada, 1. artikulua testua, alde bate-tik, handinahia da eta, bestetik, segurtasun juridikorik eza sortarazten du, bere zorrotasunik eza dela-eta.

Arrazonamendu hori bera egin behar da 1. artikuluko 2. idatz-zatiko helburu onginahitsuei dagokienez.

2. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1.1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

1.1. artikulua. "Foru lege honen xedea da Nafarroako segurtasun publikoko sistema antolatzea, zeinean administrazio publiko guztiek eta sistema hartarako sorturiko koordinaziorako eta herritarren partaidetzarako organoek parte-hartzea izanen baitute, horrela herritarren segurtasuna bermatzeko politika errealistak, praktikokoak eta eragingarriak gara daitezen ziurtatzeko".

Zioak: Hobeto zehazten du foru legearen xedea; izan ere, eskumenak antolatu beharrean, antolatzen dena da zeresana daukaten entitateen arteko harremanen sistema, segurtasun-politika koherenteak eta eragingarriak taxutzearen.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

3. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua –"Nafarroako polizia-kidegoak"– aldatzeko zuzenketa.

"Nafarroako polizia-kidegoak dira Foruzaingoa eta Nafarroako toki-poliziak edo udaltzaingoa".

Zioak: Artikuluaren testuak, zorrotasunik gabeko kontzeptu hanpatuak errepikatzeaz gain,

segurtasun-zerbitzu pribatuen kontzeptua ezarzen du. Kontu hori, hots, segurtasun pribatua, nahitaez utzi behar da polizia publikoei buruzko lege batetik at.

4. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

2. artikulua. "Nafarroako segurtasun publikoko sisteman honakoak biltzen dira: Foru erkidegoan segurtasun gaietan eskumena duten erakunde eta agintariak, polizia-kidegoak eta segurtasunaren arloko gainerako zerbitzu publikoak, eta segurtasunaren arloko koordinazio eta parte-hartze organoak.

Halaber, Nafarroako segurtasun publikoaren sistemako partaide dira segurtasun-zerbitzu pribatuak, foru lege honetan eta haiek arautzen dituen araudian xedaturiko moduan."

Zioak: Segurtasun pribatuko zerbitzuak ez daude segurtasun publikoko sisteman txertatuta, baizik eta harekin berariazko lankidetzan aritzeko eginkizuna daukate. Bestelakoa da, itxuraz, polizia-kidegoen eta segurtasun pribatuaren artean egokia ez den parekotasun bat ezartzea. Horregatik, komeni da legeak bereiz dezala batzuei nahiz besteei zer eginkizun dagokien Nafarroako segurtasun publikoaren sisteman.

Segurtasun publikoko sisteman bildurik daude, soil-soilik, izaera publikoko zerbitzuak. Ez da komeni segurtasun publikoaren pribatizazioari ateak irekitzea.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

5. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua "Oinarrizko printzipioak" aldatzeko zuzenketa.

Nafarroako Foruzaingoaren eta toki-polizien edo udaltzaingoaren arteko koordinazioak oinarrituta egon behar du erakundeen leialtasunaren eta lankidetzaren printzipioetan.

Herritarrekiko harremanak oinarrituta egon behar du pertsonaren, norbanakoaren eta kolekti-

boen eskubideen errespetuan eta, jarrera orokor gisa, elkarrizketaren eta informazioaren printzipioetan, hori guztia legezketasun, administrazio-hierarkia eta botere judizialaren zerbitzu eta harekiko mendekotasun printzipioen arabera.

Zioak: Artikuluaren testuak eragin zehatzik gabeko erreferentzia batzuk ezartzen ditu. Halaber, badaude printzipio batzuk, hala nola "nonahi egotea" edo "kideen jarduketak askotarikoak izatea", eraginkorrak ez direnak.

6. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Proposatzen da 3. artikuluko 2. idatz-zatiko a), b), c), d), e), f), g) eta h) letren ordean honakoak jartzea:

"a) Arrisku eta mehatxuei aurrea hartzea.

b) Zerbitzu publikoa gizartearen eskariari egokitzea.

c) Herritarrengandik hurbil egotea eta zerbitzu publikoak deszentralizatzea.

d) Ekintza publikoaren eraginkortasuna eta bitartekoen nahiz baliabideen esleipenaren efizientzia.

e) Jarduketan plangintza eta ebaluazioa.

f) Esku-hartze publikoaren proportzionaltasuna.

g) Agintarien eta administrazioen erantzukizun partekatua eta osagarritasuna.

h) Agintarien, administrazioen eta zerbitzuen arteko koordinazioa eta kooperazioa.

i) Gardentasuna eta herritarrentzako informazioa."

Zioak: Lege testua hobetu egiten du, argiago egiten baitu.

7. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3.2.c) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

3.2.c) artikulua, "Esku-hartze publikoaren proportzionaltasuna"

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin koherenteak izatearren. Izan ere, gure ustez, legeak gizarte-

ren aurkako egintzei buruz egiten duen definizioa bidegabekoa da, eta kutsu ideologiko atzerakoi nabarmena dauka; hori dela-eta, definizio hori ematen duen 4. artikulua ezabatzea proposatzen dugu.

8. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3.2. artikuluko d) letra aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

3.2. d) artikulua. "Herritarrengana hurbiltzea eta laster erantzutea."

Zioak: "Nonahi egotea" ezabatu beharko litzateke, soilik jainkotasunaren ezaugarria baita hori. Askatasun-araubide demokratiko batean ezin zaio poliziari eskatu nonahi egon dadila; horrek halako "estatu polizial" baten irudia ekartzen du gogora. Baina historikoki negatiboa den kutsu hori alde batera utzirik, antolaketa eta jardueraren aldetik arrazoizkoa denaz haratago doan baldintza bat gehiegizkoa da.

Gainera, gogoan hartzen badugu Nafarroako toki entitaterik gehienetan ez dagoela poliziaren inolako presentziarik, zalantzarikoa da herritarrengana hurbiltze eta laster erantzute hori existitzen direnik ere; dena den, gutxienez ere oinarrizko printzipioen artean aipatu beharra dagoela iruditzen zaigu.

9. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3.3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

3.3 artikulua. "Nafarroako segurtasun publikoaren sistema bideraturik dago gizarte ongizatea eta gizarte-bizikidetasun baketsua lortzera, betiere aniztasunarekiko begirunean, administrazioek gizarte-bazterketari erantzuteko eta giza eskubideak sustatzeko egiten dituzten bestelako politikekin koordinatuz"

Zioak: Mota horretako baieztapen batek ez du arau-eraberritze; horregatik, sobran dago testu artikuludunean. Hori horrela, gogoeta gisa jaso liteke zioen azalpenean. Dena den, gizartearen aurkako egintzarik eza sistemaren eraginkortasunaren frogatzat hartzen baldin bada, utopikoki baino ezin izanen litzateke eraginkortzat jo edozein segurtasun-sistema. Aitzitik: segurtasun-sistemaren era-

ginkortasunaren froga, hain zuzen ere, polizia-ekintzatik eratorriko da, baina prebentzio-ekintzatik, ez ekintza zuzentzailetik.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

10. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Legezko definizioen erabilera saihestu behar da, salbu eta ezinbestekoak direnean adiera zehatzeko espresioaren baten esanahia argitzeko, haren esanahi arrunta edo ohikoa zehaztuz.

Gizartearen aurkako egintzei buruz proposatzen den definizioa bidegabekoa da, eta zama ideologiko atzerakoi nabarmena du. Gizartearen aurkakotzat definitzea "portaerari buruzko arau onartuen" aurkako portaera. Arau horiek nork onartuak dira? Zer baldintzatan? "Gizartearen aurkakotzat" jo daitezke, soil-soilik, lege-mailako arau batek delitu, falta edo administrazio arau-hausteztat jotzen dituen portaerak.

Definizio horrek gaizkileei buruzko legeria frankista berpizteko ahalegin bat ematen du.

11. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua –"Definizioak"– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Polizia koordinatzeko lege bat ez da definizioak eman behar direneko araua.

Gainera, "Definizioak" izena duen artikulua horrek bi gauza baino ez du definitzen: gizartearen aurkako egintza eta berorren prebentzioa edo saihestea. Urriegi eta disfuntzional gertatzen da.

12. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

4. a) artikulua. "Gizartearen aurkako egintzak: aldarrikatu diren arauen aurkako portaerak, herri-

tarren lasaitasunari eta bizikidetasunari kalte egiten diotenak”.

Zioak: 4. artikulua, definizioak jasotzen dituen, ezabatzearen alde gauden arren, zuzenketa honetan proposatzen dugu gizartearen aurkako egin-tzetarako emandako definizioaren ordezkotzat beste bat, arriskutsua baita poliziaren lana babestea bilatzen badu, zuzenbidez kanpoko irizpide soziologikoetan edo metajuridikoetan (onarturiko portara-arauen aurkako egintzak) oinarriturik dagoelako. Nork onartuak? Bistan dago ez direla legeek edo argitaraturiko arauak zehaturiko egintza hut-sak. Toki jakin batean nagusi den iritzi edo aurreiritziak onartzen dituenak? Moralari dagozkion gogo-eten arabera?

Nahiz eta zioen azalpenean azpimarratu egiten den zer-nolako berrikuntza izan zen ordena publi-koaren kontzeptuaren ordezkotzat herritarren segurtasu-narena erabiltzea, “gizartearen aurkako egintzei” buruzko aipamen horien bitartez, definiturik dau-den moduan, ordena publiko materialaren kontzeptu zaharkitua berriro txertatu egiten da. Lege-gilea da, eta ez gizartearen iritzi hutsa, zeina ez baitago arauetan gauzaturik, gizartearen aurkako-tzat zehatuak izan daitezkeen portaerak zehaztu ahal eta behar dituenak.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

13. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua –“Nafarroako Gobernua”– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lege proiektuko 5. artikuluko 1. idatz-zatia ez da koherentea Foru Hobetzearen 51. artiku-luarekin. 2. idatz-zatiak Segurtasun Plan Orokorra, zehapenak ezartzeko ahalmena eta bestelako kontzeptuak sartzen ditu, ez direnak ez funtziona-lak ez zorrotzak ere.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

14. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua –“Nafarroako Gobernua”– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dauka inolako zentzurik; izan ere, nolabait esaten du eskumena izanen duela esku-dun den departamentuak, eta esleitzen zaizkion eskumenak izanen dituela.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

15. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua –“Segurtasun publikoaren arloko agintari publikoak”– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dauka eduki funtzionalik, eta agintari-tza goren gisa Gobernuko lehendakariarena bera-rena ezartzeaz ahazten da.

Gainera, Nafarroako Herritarren Segurtasune-rako Kontseilua, Segurtasun Plan Orokorra eta beste hartzen ditu hizpide, eta guri erakunde gehiegi direla iruditzen zaigu.

Bestetik, zehapen-ahalmenari dagokionez, igorpen hutsak eginez konpontzen da; alegia, kontseilariak izanen du esleitzen zaiona, eta alkateek ere, daukatena.

16. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. Gaz-telaniazko bertsioaren 7. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letran honakoa gehitzea proposatzen da: “El Consejero o Consejera...”

Zioak: Arauari hizkera ez-sexista aplikatzea.

17. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

7.2. artikulua. “Segurtasun publikoaren arloan eskudun den kontseilariak eginkizun hauek izanen ditu:”

Zioak: Egokiagotzat jotzen da gauza bera adie-rzateko espresio bera erabiltzea arau-testu guztian zehar. Horrela, bada, gure proposamena da betie-

re erabiltzea “Segurtasun publikoaren arloan eskudun den kontseilari” espresioa.

18. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

7. artikulua 2. idatz-zatiko i) letran “..aurkeztea, onets ditzan” espresioaren ondotik hauxe gehitzea proposatzen da: “Txosten horiek, Nafarroako Gobernuak onetsi ondoren, Parlamentuari igorri beharko zaizkio.”

Zioak: Beharrezkoa dirudi Parlamentuari segurtasunaren gaineko urteko txostenaren berri emateak.

19. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

7. artikuluko 3. idatz-zatian “Alkateek ondoko eginkizunak izanen dituzte” espresioaren ondoren hauxe gehitzea proposatzen da: “..ezertan galarazi gabe toki legeriak esleitzen dizkien gainerako eginkizunak.”

Zioak: Lege testua hobetzen du.

20. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

7. artikuluko 3. idatz-zatian a) eta b) letren ordena aldatzea proposatzen da.

Zioak: Ordena horrek logikoagoa dirudi.

21. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

7. artikuluko 3. idatz-zatiko e) letraren ordean honako testu hau jartzea proposatzen da:

“e) Udalbatzari tokiko segurtasun batzordeak onetsitako tokiko segurtasun planaren berri ematea.”

Zioak: Gure ustez, segurtasun plana ez du alkateak onesten, tokiko segurtasun batzordeak baizik.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

22. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua –“Nafarroako polizia-kidegoak”– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dago arau horren beharrik, eta, gainera, Foruzaingoaren funtsezko ezaugarria, zintotasunarena, ez du aipatzen.

23. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 3. idatz-zatiko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa.

8.3. artikulua. Lehen lerrokadan honako testua hau kentzea: “Segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuak oniritzia eman beharko du aurretiaz.”

Zioak: Udal jardueraren fiskalizazio hori toki-autonomiaren aurkakoa da; bereziki, lankidetzahitzarmenerako baimena ematea edo ez ematea zeharo uzten baita zuhurtziarakotasunerako, ez baita arautzen inolako irizpide objektiborik baimen hori emateari edo ez emateari dagokionez.

24. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

8. artikuluari beste bi idatz-zati gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“4. Foru erkidegoko berezko erakundeetako polizia-kidegoen arteko harremanak arautzen dira segurtasun-sistema orokorra antolatzen duten printzipioei loturik, eta bereziki, osagarritasuna, koordinazioa, laguntza, lankidetzeta eta elkarri

laguntzea, batez ere tokiko segurtasun batzordeen baitan. Segurtasun publikoaren arloko eskumenen titular den departamentuaren eta udalen artean sinaturiko hitzarmenek udalerrri bakoitzeko baldintzetara egokitu eta zehaztu behar dituzte printzipio horiek.

5. Gobernuak, batez ere segurtasun publikoaren arloko eskumenen titular den departamentuaren bitartez, bai eta udalek ere, beren baterako organoen baitan sustatu behar dituzte beren segurtasun-zerbitzuen plangintza operatiboa eta baliabideen esleipen efizientea eta baterako aprobetxamendua, polizia-informazioko sistemen integrazioa eta antolaketa eta operazio estandarren homogeneizazioa.”

Zioak: Lege-testua hobetzen du, aplikazio eta jarduketa esparrua zedarritzen baitu.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

25. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua –“Herritarren Segurtasunerako Kontseilua”– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Segurtasunerako Kontseilu baten inolako beharrik ez dago. Praktikan, Segurtasun Batzordearen mendean egonen litzateke, eta eskualde kontseiluei nahiz toki kontseiluei gainerarriko litzateke.

Segurtasunerako eskualde kontseiluen beharrik ere ez dago.

Gainera, zer-nolako harremana legoke herritarren segurtasunerako aurreikusiriko kontseilu horren eta 1. artikuluan ezarritako Segurtasun Publikorako Departamentu arteko Batzordearen artean?

Herritarren segurtasunari buruzko politika Gobernuari dagokio bete-betean, eta horretarako organo exekutiboa kasuan kasuko kontseilaria da.

26. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatiaren letra bat gehitzea, testu honekin:

9.3 artikulua. Letra berria. “Nafarroako Segurtasun Plan Orokorrari buruzko nahitaezko txostena ematea.”

Zioak: 18.2 artikuluan ezarrita badago ere plana prestatzeko Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Kontseiluaren gomendioak hartu behar direla kontuan, eta 18.3 artikuluan, berriz, plana erakutsi egin behar zaiola alde aurretik, uste dugu Kontseiluak, gainera, planari buruzko txostena egin behar duela.

Kontseiluaren eginkizunen artean baldin badago segurtasun publikoaren egoera orokorra aztertzea, ikertzea eta ebaluatzea, eta, bereziki, alderdi horiei buruzko neurriak sustatzea, erabat logikoa da Nafarroako Segurtasun Plan Orokorrari buruzko txostena egin behar izatea, eta ez soilik hura ezagutzea.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

27. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua –“Herritarren segurtasunerako toki kontseiluak”– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Udalaren osoko bilkurari eginkizunak usurpatzea da, eta, gainera, Nafarroan diren kontseilu eta batzordeen inflazioa areagotzen du.

28. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

10. artikulua 1. idatz-zatiaren amaieran “beren eskumenen esparruan” gehitzea proposatzen da.

Zioak: Ez zait zuzena iruditzen honelako lege batean toki izaerakoak diren organoen osaera arautzea.

29. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

10. artikuluko 2. idatz-zatia kentzea proposatzen da, dituen letrak barne.

Zioak: Ez zait zuzena iruditzen honelako lege batean toki izaerakoak diren organoen osaera arautzea.

30. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 10. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Honako testu hau izanen du:

“2. Herritarren segurtasunerako toki kontseiluek alkatea edo berak eskuordetutako pertsona izanen dute buru, eta horrek hurrengoan artetik aukerako ditu kontseiluko kideak:

a) Herritarren segurtasunarekin zerikusia duten udal zerbitzuak.

b) Udalerriko bizilagun eta herritarren elkarteak, edota entitateen, erakundeen edo elkarteen bestelako edozein ordezkari-tza.”

Zioak: Herritarren segurtasunerako toki kontseiluetako ordezkari-tza ordenatzea eta arrazionalizatzea.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

31. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua –“Segurtasun Publikorako Departamentu arteko Batzordea”– kentzeko zuzenketa.

Zioak: 9. artikuluko berak.

12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

32. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua –“Nafarroako Segurtasun Batzordea”– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Segurtasun Batzordea egon badago, eta zuzenketa aurkeztu diogun 12. artikulua tautologia bat besterik ez da, dagoenaren errepikapena, baina beharrezkoa izan ez eta arriskutsua den zerbait gehituta, “gorena” hitza hain zuzen. Hitz hori ez da ageri Foru Hobetzean; horrek beharrik gabe hedatzen du eskumenak ez eskuratzeko beldurra, eta Nafarroako herriak nahi ditu eskumen horiek, beste autonomia erkidego batzuek ere badituztenak. Bestalde, beharrik gabe eta bere kasa aitortzen dio nagusitasuna organo misto bati.

13. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

33. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

13 artikuluko 1. idatz-zatiaren amaieran ondokoa gehitzea proposatzen da: “Batzorde hori lankidetzeta eta koordinazio orokorrerako organoa izanen da udalerrian diharduten polizia-kidego eta gainerako segurtasun zerbitzuentzat, bai eta herritarrek segurtasun sisteman parte hartzeko organoa ere.”

34. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

13.2 artikulua. “Batzorde hori lankidetzeta eta koordinaziorako organoa izanen da udalerrian diharduten polizia-kidegoentzat”

Zioak: Tokiko Segurtasun Batzordearen osaketa eta eginkizunak ikusita, begi-bistakoa da polizia-kidego publikoak direla koordinatzen direnak eta lankidetzan dihardutenak; beraz, kendu beharra dago “gainerako segurtasun zerbitzuentzat”. Segurtasun pribatuari dagokionez, legedian badira beste mekanismo batzuk, segurtasun pribatuko batzorde mistoak esaterako. Segurtasun pribatuari ez zaio berezko izaera eman behar segurtasunaren arloko politika publikoak prestatzeari dagokionez, ezta polizien arteko lankidetzeta organoekin parekatu ere, horrelako organo bat balitz bezala.

34. bis ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

13. artikuluari, 3. idatz-zatian, a) letraren aurretik, beste letra bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Gobernuaren lurralde ordezkaria; horrek zuzendariorde orokorraren esku utz dezake ordezkaritza.”

35. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

13. artikuluari, 4. idatz-zatiaren aurretik, beste idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Aztertu beharreko gaien arabera, Tokiko Segurtasun Batzordearen bileretara joan beharko dute, hizpidearekin baina boto eskubiderik gabe, epailetzaren eta fiskaltzaren ordezkariak, Estatuko administrazioak hala erabakiz gero.”

36. ZUZENKETA**ASKOTARIKO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13.7 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

13.7 artikulua. “Tokiko Segurtasun Batzordeak udalerrian diharduten polizia kidegoen lanak koordinatzeko mahaia izendatu ahal izanen du, eta hura osatuko duten poliziaburuak izendatu, honako eginkizunak bete ditzan:”

Zioak: Tokiko Segurtasun Batzordearen osaketa eta eginkizunak ikusita, begi-bistakoa da polizia-kidego publikoak direla koordinatzen direnak eta lankidetzan dihardutenak; beraz, kendu beharra dago “udalerrian diharduten segurtasun kidego” horien aipamena. Segurtasun pribatuari dago-kionez, legedian badira beste mekanismo batzuk, segurtasun pribatuko batzorde mistoak esaterako. Segurtasun pribatuari ez zaio berezko izaera eman behar segurtasunaren arloko politika publikoak prestatzeari dagokionez, ezta polizien arteko

lankidetzaren organoekin parekatu ere, horrelako organo bat balitz bezala.

**14. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****37. ZUZENKETA****ARALAR**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua –“Koordinazioa”– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Koordinazioaren definizioa, beharrezkoa ez izateaz gain, ez da oso zehatza.

Jakina da begi-bistakoa definitzea nahasteko besterik ez dela izaten.

**15. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****38. ZUZENKETA****ARALAR**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua –“Eginkizunak”– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen dugun testua:

“Foru administrazio publikoen menpeko polizien koordinazioa, hots, Foruzaingoarena eta toki polizia edo udaltzaingoena, horien arduradunen arteko harremanaren bidez egiten da, hau da, eskuduna den kontseilariaren eta poliziak dituzten udaletako alkateen arteko harremanaren bidez.”

Zioak: Artikuluak hutsune hauek ditu:

1. Toki polizien arteko koordinazioaz baizik ez du hitz egiten.

2. Nafarroako Gobernuari ematen dio zuzenean horren eskumena. Alegia, ez du koordinazioa ezartzen, baizik eta buruzagitza hartzen du.

3. 3. idatz-zatia, nahiz eta bertan esaten den udalen eskumenak errespetatuko direla, aurreko bi idatz-zatietan agertzen den kontraesan nabarmenaren babesgarria besterik ez da.

4. 4. idatz-zatian gobernuari araudi orokorra emateko ahalmena ematen zaio.

Hori 25. artikuluan esaten denarekin lotuta; izan ere, hori da koordinazioaren gaiaren oinarria. Artikulu horretan ezarritakoa, ordea, artikulua

honek proiektuan duen testuarekin kontraesanean dago.

39. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15.2 artikuluko g) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Babes zibilaren arloko jarduketan koordina-zioa planek eta babes zibilar buruzko araudiak erabaki behar dute. Aipamen hori ez da beharrezkoa, ez baitu inongo ekarpenik edo berrikuntzarik egiten.

16. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

40. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua –“Nafarroako Udaltzaingoak Koor-dinatzeko Batzordea”– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Departamentuan beste aholku batzorde bat sortzea da, eta departamentuak ez ditu esleituta koordinazio eginkizunak, ezta proiektuan ere, Gobernuarenak baitira.

Batzorde, kontseilu eta erakundeen inflazioa areagotzea da, nahastearen mesedetan.

41. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

16. artikuluko 6. idatz-zatiaren c) letran testu hau gehitzea proposatzen da: ... “dituen eskumenen esparruan”.

IV. KAPITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

42. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

IV. kapitulua –“Segurtasun arloko plangintza”–, hots, 17, 18, 19 eta 20. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lehenik, ikuspegi ideologi modernoetik, segurtasun planen kontzeptua gainditua dago; besteak beste, lehenasuna ematen diolako segurtasunari eta ez askatasunari.

Bigarrenik, Nafarroak ez badu eskumen gehiago hartzen (errepideak eta herritarren segurtasuna, gutxienez), nola egingen du segurtasunari buruzko plangintzarik? Plan horien menpe egonen al dira, planak orokorrak, bereziak edo beste edozein modutakoak izan, 51.2 artikuluko Segurtasun Batzordea eta Estatuko segurtasun kidegoak?

Ba al dute planek zentzurik Estatuko segurtasun kidegoek Nafarroan dituzten eskumenak izaten jarraitzen duten bitartean?

18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

43. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

18.1 artikulua. “segurtasun pribatukoak barne” kentzea.

Zioak: Segurtasun pribatua ez da sartu behar, beste trataera bat behar baitu; izan ere, ez du herritarren bizikidetzeta eta segurtasunarekin lotutako eginkizunik. Ez dago segurtasun pribatuari buruzko plangintzarik egiterik.

44. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

18.3 artikulua. “Nafarroako Gobernuari dago-kio, segurtasun publikoaren arloan eskumena

duen departamentuko kontseilari titularren proposamenari jarraituz, erabakitzea Nafarroako Segurtasun Plan Orokorren proiektua Nafarroako Parlamentura igortzea, Segurtasunerako Departamentu arteko Batzordeari eta Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Kontseiluari erakutsi ondoren.

Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra Nafarroako Parlamentuak onetsiko du.”

Zioak: Plangintza-dokumentu horren garrantziak eztabaida publikoa eskatzen du, non nafarren ordezkari politikoek parte hartu ahal izan dezaten, eta, aukera izanez gero, hasierako dokumentua hobetu dezaten erabaki proposamenak aurkeztuz.

Parlamentuak plangintza orokorrean parte hartzeak, gainera, tresna horren zilegitasuna areagotzen du, proiektuan iradokitzen den bidetik, hau da, herritarren parte hartzearen eta arduen parte hartzearen bidetik. Bestalde, toki plangintzaren zuzendaritza-izaerari zilegitasuna ematen dio.

45. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18.4 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

18.4 artikulua. “Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra tokiko eta udalez gaindiko segurtasun planak egiteko gidalerroak eta irizpide teknikoak ezarriko ditu, horien arteko koordinazioa eta integrazioa lortzeko, toki autonomia errespetatuz betiere.”

Zioak: Toki enteen autonomia bermatze aldera, ez diogu egoki irizten koordinazioa eta integrazioa erabili ahal izateari udalek duten toki autonomiaren printzipioa bortxatzeko. Plangintzaren muga toki autonomiaren errespetua izanen dela ziurtatu behar dugu.

46. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikuluarik gehiketa egiteko zuzenketa.

18. artikuluko 4. idatz-zatian ondokoa gehitzea proposatzen da: “.. Plana egiterakoan kontuan hartu behar dira Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Kontseiluaren gomendioak.”

19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

47. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua aldatzeko zuzenketa.

19. artikuluko 2. idatz-zatian, “Alkateei dagokie...” ordez “Toki korporazioetako osoko bilkurei dagokie...” jartzea proposatzen da.

20. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

48. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20.3.c) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

20.3.c) artikulua. "Helburuak lortzeko erabili ahal izanen diren bitarteko eta baliabideak, helburuak lortzeko lagungarriak izan litezkeen segurtasun pribatukoak barne, legez baldin badaiteke.”

Zioak: Horretan zuzen jokatuta beharra dago. Izan ere, segurtasun pribatuari buruzko araudia oinarri, eta haren jarduketara esparru funtzional eta geografiko murrizta kontuan hartuta, zaila dirudi plangintzan sartzeko aukera izatea.

Segurtasun pribatuko langileek bete beharreko helburuak jartzeak planetan, bestalde, bi eratako arazoak ditu: a) zerbitzu horien hedatzea, eskuragarritasuna eta erabakimena alde pribatu kontratatzaileen eskumenekoak dira, eta horrek ez dio administrazioari horri buruzko erabakirik hartzen uzten; besterik da zerbitzu operatiboek polizien jarraibideei men egin beharra. b) Nafarroan segurtasun enpresa kopuru handia ari da lanean, eta zerbitzu asko eta heterogeneoak ematen dituzte; horrek, edozein erabaki zailtzen du, administrazio publikoek zuzenean kontratatutako baliabideen gainekoak izan ezik.

**21. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

49. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua –"Printzipioak"– kentzeko zuzenketa:

Zioak: Artikulu hori ez da beharrezkoa eta dis-funtzionala da. Artikulu horretan jasotako printzipioak begi-bistakoak dira, eta horien zerrendak, izatekotan, zioen azalpenean agertu beharko du. Artikulu batean jasotzeak ez du ezertarako balio, eta nahasgarria da.

**22. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

50. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

22 artikulua aldatzeko zuzenketa.

22. artikulua ordeztu eta testu hau jartzea proposatzen da:

"22. artikulua. Informazio estatistikoa.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estatistika Sistemaren bidez, hauek sustatu behar ditu:

a) Segurtasunaren arloko jarduera estatistikoen berrikuntza, garapena eta finkatzea, sistema estatistiko koherente bat eratzeko, fidagarria, gaurkotua, inguruko sistemekin parekatzeko modukoa eta administrazioarentzat segurtasun publikoaren arloan erabakiak hartzeko erabilgarria.

b) Administrazio publiko eskudunek segurtasunaren arloan sortzen dituzten informazio estatistikoen konparagarritasuna.

c) Segurtasun publikoaren arloan eskuduna den departamentuaren eta Barne Ministerioaren arteko informazio estatistikoaren trukea, Segurtasun Batzordaren baitan, Nafarroako Foru Komunitatean estatistikari buruzko araudiak ezarritakoa galarazi gabe.

d) Zigor-zuzenbideko arau-hausteeekin zerikusia duten estatistika-jardueren koherentzia, Nafarroako Estatistika Sistemaren esparruan; bereziki, arlo judizial, fiskal eta zigor-betearazpenekoan.

51. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

22. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Eginkizunak.

Hau da proposatzen dugun testua:

"2. Segurtasun publikoaren arloko... estatistika-jardueretan oinarritua. Txosten hori Nafarroako Parlamentuari eta agintari eta organo interesatuei eman beharko zaie."

Zioak: Informazio estatistikoa esleitutako eginkizun bat da eta unean uneko organo erabakitzailerari eman behar zaio. Ez dago arrazoirik aurreikusteko gobernuak, batzordeek, batzarrek, kontseiluek eta abarrek datu horiek ezagutuko dituztela. Parlamentu-talde honen ustez, ez dago arrazoirik halakorik izateko ere.

**23. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

52. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23. artikulua kentzeko zuzenketa.

23. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Halako gaiak hitzarmenean bertan arautu behar dira.

53. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

23.2 artikulua. Polizia Datuen Tratamendurako Zentroa segurtasun publikoaren arloko gaietan eskumena duen departamentuaren menpekota izanen da eta haren egitura eta funtzionamendua bat etorriko dira datu pertsonalen babesari buruzko Lege Organikoan eta indarra duten gainerako legeetan xedatutakoarekin.

Zioak: Egokiagotzat jotzen da gauza bera adierazteko espresio bera erabiltzea arau-testu guztian zehar. Horrela, bada, gure proposamena da betie-

re erabiltzea "Segurtasun publikoaren arloan eskudun den kontseilari" espresioa.

54. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23. artikulua kentzeko zuzenketa.

23. artikuluko 3. idatz-zatitik ondokoa kentzea proposatzen da: "...kasuan kasuko udalak, kontuan izanik datuak eskuratu, kontsultatu eta trukatzeko protokoloak eta departamentuko titularrak ezarzen duen aplikazio informatikoaren erabilera".

Zioak: Halako gaiak hitzarmenean bertan arautu behar dira.

55. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23.4 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

23.4 artikulua. Segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen departamentuak poliziaren intereseko informazioaren trukea sustatu beharko du, bai Foruzaingoaren eta Estatuko eta autonomia erkidegoetako kidegoen arteko trukea eta bai Europar Batasunean polizien lankidetzeta edo koordinazioa antolatzeko eskumenak dituzten erakundeekiko ere.

Zioak: Poliziaren eginkizunak gero eta zerikusi handiagoa dauka informazioa kudeatzearekin eta, ildo horretan, beste polizia-kidego batzuekin dagoen lankidetzeta gero eta estuagoa eta koordinatua goa nafarren segurtasun publikorako berme bat da. Ikuspegi honetatik, Nafarroatik geografikoki hurbilen dagoen polizia autonomikoarekiko lankidetzeta erabat ezinbestekoa da.

56. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23. artikuluko 4. idatz-zatiari, eginkizunak, beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen dugun testua:

"Horretarako, Nafarroak sustatuko du hitzarmenak izenpetzea Estatuarekin eta truke hori bermatzeko eskumenak dauzkaten gainerako organismoekin".

Zioak: 23. artikuluko honek, bai eta 24.ak ere, 22.arekin batera, koordinazioaren egiazko egitura zehazten dute, eta arau honen egituratzat hartu behar dira.

Horrexegatik, zuzenketa aurkeztu duen parlamentu-taldeak ez du aurkeztu ordezeko testua duen zuzenketarik, eta hori da osoko zuzenketari guk ematen diogun esanahia.

57. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

23. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

23. artikuluari, 5. idatz-zatiaren ondoren, beste idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

"Segurtasun publikoaren arloan eskudun den departamentuak erregelamendu bidez ezarri behar ditu datuak eskuratzeko, haiek kontsultatze-ko eta trukatzeko protokoloak, bai eta aplikazio softwarea erabiltzekoak ere, eta, bidezkoa bada, polizia-komunikazioen sistematarakoak ere".

24. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

58. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluan beste idatz-zati bat, 5.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

24.5 artikulua. Nafarroako Gobernuak, segurtasun publikoaren arloan eskudun den departamentuaren bitartez, lankidetzeta hitzarmenak izenpetu ahalko ditu estatuko edo beste autonomia erkidegoetako administrazioekin, segurtasunaren arloko eskumenen esparruan. Hitzarmen horien bidez zehaztuko dira zerbitzuak, batez ere poliziaren arlokoak, koordinatzeko eta lankidetzan jarduteko prozedurak, baita segurtasunaren arloko esparru desberdinetako politika publikoak garatzeko jarduketak ere. Zioak: Beste administrazio publiko batzuekin lankidetzeta harremanak izateko aukerak osatzeko baliagarria da. Gainera, poliziaren lana gero eta gehiago oinarritzen da informazioaren kudeaketan eta, horren haritik, beste polizia kidego batzuekin lankidetzeta gero eta estuagoa eta koordinatua goa izateak nafarren segurtasun publikoa bermatzen du.

59. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

24. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

24. artikuluari, 4. idatz-zatiaren ondoren, beste idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

Hitzarmenek bermatu egin behar dute herritarrek eduki eta kalitate bereko segurtasun zerbitzuak jasoko dituztela, bizi diren tokian bizi direla ere, eta ezaugarri soziodemografiko berdintsuak dituzten udalerrietan segurtasun zerbitzuak parekoak izanen direla.”

**25. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****60. ZUZENKETA****ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

25. artikuluko 1. idatz-zatiari letra bat, e) letra, gehitzeko zuzenketa.

“e) Herritarren bizikidetasunaren eta askatasunak erabiltzearen arloko eginkizunak Nafarroako herri guztietan, polizia integrala den aldetik.”

Zioak: Foruzaingoaren xedea izan behar da polizia integral bat izatea eta estatuko segurtasun indarrak ordezkatzeko herritarren arteko bizikidetasunaren arloko eginkizun guztietan.

**VI. KAPITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****61. ZUZENKETA****ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

26., 27. eta 28. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 26. artikuluan aipatzen den parte-hartzea ezin da mugatu segurtasunarekin zerikusia duten gaietara, eskubideen gaia kontuan hartu gabe. Beharrezkoa da 27. eta 28. artikuluetan ere ezartzen den muga hori gainditzea; izan ere, testu horrek gaur egungo eta etorkizuneko gizarteetan onargarria ez den pentsamoldea islatzen du.

Segurtasuna askatasunen bermatzaile izatearen ikuspegia ezin da garatu segurtasunaren kon-

tzeptuaren ikuspegi murriztailea edo kontserbadorrea aintzat hartzen bada.

**26. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****62. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

26. artikulua ordezteko zuzenketa.

26. artikulua ordeztzeko honako testu hau jartzea proposatzen da:

“26. artikulua. Herritarren eskubideak.

1. Herritarrek eskubidea dute beren erkidegoan edo eremu edo esparru jakin batean gertatzen diren eta segurtasun publikorako bereziki arriskuak diren egoerei buruzko informazioa jasotzeko, baita egoera horiei aurre egiteko prebentzio neurri egokiei buruzkoa ere.

2. Herritarrek eskubidea dute segurtasun planetan ezarritako neurriei buruzko informazioa jasotzeko, baldin eta haien eskubideak eta interesak eta herritarren arteko bizikidetasunaren garapen normala ukitzen ahal badituzte.

3. Arrisku bereziko egoerei aurre egiteko kasuaren kasuko planak eta neurriak onesteko organo eskudunek baliabide egokiak ezarri beharko dituzte 1. eta 2. idatz-zatietan aipatzen diren informazioak publikoki hedatzeko.”

**XEDAPEN GEHIGARRIARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****63. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa. Beste xedapen gehigarri bat eransten da. Testu hau izanen du:

“Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako polizia-kidegoetako segurtasun publikoko laguntzaileak.

Nafarroako polizia kidegoek, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren (urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia) 27. artikuluan ezarritakoa ezertan galarazi gabe, poliziaren laguntzaile

eginkizunak beteko dituzten langileak izan ditzakete. Langile horiek beteko dituzten eginkizunak soilik izanen dira ondasunen, zerbitzuen, instalazioen eta egoitza ofizialen zaintza, herritarrei laguntza ematea eta babes zibilaren arlokoak eta administrazio izaera duten arauak betearaztea. Ondorio horietarako agintaritzaren agentetzat hartuko dira. Langile horiek Nafarroako administrazio publikoan zerbitzuko langileen D mailakoak izanen dira eta ez dute suzko armarik eramanen beren eginkizunetan. Zerbitzua ematen hasi aurretik egiaztatu beharko dute Nafarroako Segurtasun Eskolak ematen duen Nafarroako polizia-kidegoetako segurtasun publikoko laguntzaileen ikastaroa gainditu izana”.

Zioak: Nafarroako polizia-kidegoetako polizia zerbitzuei laguntza emateko tresna arautzea. Laguntzaileen postua hartzea malguagoa da eta horrek ahalbidetzen du salbuespenezkoa edo behin-behineko egoerei arintasunez erantzun ahal izatea. Laguntzaile horien eginkizunak testuan zehaztutakoak izanen dira, eta horietan agintaritzaren agentetzat hartuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

64. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Xedapen indargabetzaile bakarra aldatzea proposatzen dugu, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legeko testu bateginaren I. tituluaren aipamena zuzenduz. Hartara, “I. titulu” dioen lekuan, “II. titulu” esan behar du.

Zioak: Idazterakoan eginiko akats tipografiko bat zuzentzea.

ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

65. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

Ordezko testua: “Nafarroako segurtasun publikoari buruzko lege baten helburuak izan behar du

pertsonaren eskubideak aldezte, banakakoak eta kolektiboak, aniztasunaren defentsa positiboki baloratu, aldeztu eta sustatuko duen herritarren bizikidetasunaren esparruan.

Nafarroa, erkidego politiko gisa, eskumen osoak eduki nahi ditu herritarren bizikidetasunaren esparruan eta hartu-emanak eduki nahi ditu gainerako erkidego politikoekin eskubide eta askatasun pertsonalak zaintzearen arloan nahiz pertsonen eta ondasunen segurtasuna eta ordena zaintzearen arloan.

Nafarroak herritarren bizikidetasunaren arloan eskumen osoak edukitzeko nahi legitimoak berekin ekarri behar ditu, halaber, poliziaren eta segurtasunaren arloetan eskumenak bereganatzeko prozesuak, eginkizun hori esleituri daukaten kidego eta erakunde guztien erabateko koordinazioa erdiesteko eta herritarrek parte hartzeko bideak –hain zuzen ere, demokratikoki hautaturiko erakundeak ordeztuko ez dituztenak– sortzeko perspektibarekin”.

Zioak: Legeko zioen azalpenak legearen premia justifikatzeko argudio politiko eta sozial bakarra erabiltzen du; argudio hori, ideologia oso kontserbadore baten adierazpidea izateaz gainera, ez dator bat egungo errealitate sozialarekin.

Argudio hori ondoko hitzez hitzeko esaldian laburbil daiteke: “gizartean segurtasunaz dagoen kezka gero eta handiagoa da”.

Hala eta guztiz ere, gizarte modernoan funtsezko kezka, gutxienez ere giro intelektual eta ideologiko aurrerakoietan, ez da segurtasuna bera izaten, baizik eta, hain zuzen ere, segurtasunaren aitzakian askatasunean murrizketak egiteko arriskua. Gero eta kezka handiagoa dago propagandaren bidez segurtasunaren gaineko arreta sublimatzeko aniztasunaren eta askatasunaren kaltetan. Kezka handia dago eskubide pertsonal, indibidual eta kolektiboak orden eta segurtasun gaien menpe gera daitezkeelako. Kezka dago segurtasunaren irizpideak izugarri azpimarratzeak berekin ekar dezakeelako zibilizazio modernoaren oinarria osatu duten askatasunaren oinarriko printzipioak deuseztatzea.

Segurtasunaren printzipio bakar hori sublimatzeak adierazi nahi duen makurtze ideologiko horretatik abiatuta, zioen azalpenean, bigarren idatz-zatian, honakoaren beharra justifikatu nahi da: “lurralde eremu guztietan segurtasunaren planifikazio orokorra eginez, Segurtasun Plan Orokorretik eta udalerrietako nahiz udalez gaindiko planetatik abiatuta...” Segurtasun planaren kontzeptua bera eztabaidagarria da, eta demokraziaren ikuspuntutik arriskutsua izan daiteke; baina, horretaz

gainera, lege honek aurreikusten dituen planen, segurtasun kontseilu eta era guztietako erakunde-en pilaketak sozialki eta demokratikoki itogarri gerta daitekeen sarea osatzen dute.

Hala eta guztiz ere, horrezaz gainera, lege hau handinahia da, zeren eta herritarren bizikidetasunaren arloko eskumen orokorrak bereganatu nahi ez izatetik abiatuta, gehiegizkoa baita, izenburutik hasi eta legearen aurreikuspenetaraino. Ezin da segurtasunaren gaineko plangintza orokorrik egon guardia zibila, polizia nazionala, CNla eta lege-araupetze honen xede ez diren beste hainbeste eremu alde batera utziz.

Funtsean, lege honek izen askoz apalago bat eduki beharko luke –“Foruzaingoa eta toki-poliziak koordinatzeari buruzko Foru Legea”–, eta udalek arlo horretan dituzten eskumenak errespetatu beharko lituzke, legearen terminologian segurtasun pribatuko kontuak sartu gabe.

Nafarroako herritarren iritziz, une honetan, herritarren bizikidetasunaren eta segurtasunaren arloan, presakoena da segurtasun pertsonaleko kidego pribatu eta publikoak gainditzea.

IZENBURUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

66. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Legeko titulua aldatzeko zuzenketa.

Proposamena: “Nafarroako Foruzaingoa eta toki-poliziak edo udaltzaingoa koordinatzeari buruzko Foru Legea”.

Zioak: Lege honen xedea da Nafarroako Foruzaingoa eta toki-poliziak edo udaltzaingoa koordinatzea.

Lege proposamenean jasotako gainerako arau-ek, handinahiak izateaz gainera, nahasbidea ekar dezakete, iradoki baitezake Nafarroako gizarteak ez dituela herritarren bizikidetasunaren arloko eskumen osoak eduki nahi eta, gainera, interpretazio ugaritan okerrak sor ditzake; 2. artikuluan, esate baterako.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2006ko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztutako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasunaren arloko gastu publikoa handitu dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da osasunaren arloko gastu publikoa handitu dezan".

Legebiltzarrak 2006ko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Barañaingo eta Iruñeko Bigarren Zabalguneko osasun etxeak zabal ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Barañaingo eta Iruñeko Bigarren Zabalguneko osasun etxeak zabal ditzan".

Legebiltzarrak 2006ko apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urtebete 43,95 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »</p>	<p>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA</p>
--	--